

KANALAK

Zein kanal erabiltzeko asmoa dugun eta bezeroei gure balio-proposamena nola helaraziko diegun argi edukitzea oso pausu garrantzitsua da gure *honni* enpresa sortzerako orduan. Horretarako, banbuzko metxero elektrikoek salmentarako, bezeroekiko komunikazio kanalak, hauen banaketa kanalak, eta hauen salmenta kanalak zehaztu ditugu. Kanal mota bakoitzak hainbat abantaila eta desabantaila dituzte: elkartutako kanalei dagokienez, irabazi-marjinak txikiagoak dira baina propioen kasuan baino bezero kopuru handiago batera iristea ahalbidetzen du. Aldiz, zuzeneko kanal propioei dagokienez, irabazi-marjinak handiagoak dira baina bezero kopuru txikiago bat edukiko genuke. Beraz, hauen oreka bilatu dugu gure produktuaren etekina handiena izan dadin. Hau da, bi kanalak erabiliko ditugu, bezeroak hobekien moldatzen zaiona aukera dezan.

Egia da gure gizartean aurre iritzi asko dagoela metxeroen inguruan, hau da, biztanleriaren gehiengoak metxeroak ohitura txarrekin lotzen ditu. Gehiengoetan erretzea da metxeroa erabiltzeko aukera bakarra, egia da, baina, gure ustez erretzeak nahikoa kutsatzen du, horregatik egin behar dugu ekintza hori hobetzeko apostua. Nola? Metxero ekologiko elektrikoak salduz. Horrela lortuko dugu gure bezeroak gerturatzea. Haiek ere konturatuko dira gasezko metxeroak alde batera uztea dela aukera onena, horrela gureak erabiliz.

Behin gure bezeroak metxeroa erosteko interesa duten, prozesu bat jarriko dugu martxan. Hau da, banatzeko unea iritsiko litzateke.

Zuzeneko kanalei dagokienez, online denda bat edukiko dugu, webgune propioa izango dena, bertan gure produktua salduko dugu eta pertsonalizatzeko aukera eskainiko dugu, beraz, erabat praktikoa izango da, izan ere, nahi duzun diseinua aukeratzeko aukera izango duzu eta aurreko guztia erabaki ondoren etxera bidaliko da diseinu eta guzti. Gure balio proposamenaren pertsonalizazioa

eta diseinuaren originaltasuna sustatzeko ezinbestekoa da webgune hau edukitzea. Beraz, gure denda fisikora joan beharrean, erraztasuna eskainiko zaio bezeroari etxean jasotzeko aukera izan dezan, honek, eskuragarritasuna bermatzen du. Bestalde, etxeko helbidea jartzeko beldurra duten pertsona horiek guztiek, salmenta puntu batera eskatzeko aukera izango dute, etxeko helbidea jartzeko beharra saihestuz.



Gainera, webgunean kolaborazioak egiteko telefono zenbaki bat edukiko dugu, hau da, gure segmentu merkatuaren zati bat beste enpresa batzuk izango dira: sukaldaritza enpresak, “Forum sport” motako

trabesietarako kit-ak saltzen dituzten enpresak... Beraz, hauekin kolaboratzeko elkarrizketa zuzenak eduki behar dira, adostasunak egiteko eta gure produktua kantitate handitan bidali ahal izateko, beraz, zerbitzu hori gure webguneak eskainiko du. Horretarako, Seur enpresa azpikontratatuko dugu guri dagozkigun bidalketak egin ahal izateko, horretarako bertako lankideekin harremanetan jarriko gara. Alde batetik, webgunetik eskatzen diren metxeroen bidalketa, beste batetik, elkartutako dendetara bidalketa. Seur kontratatuz gure garraioaren kostua asko murriztuko genituzke ekonomikoki hazkunde bat lortuz eta etekinak maximizatuz.

Zeharkako kanalei dagokienez, estankoetan, supermerkatuetan eta bestelako dendatan aurkituko da eskuragarri. Bestalde, ez dugu “Honni” denda fisiko propioa edukiko, horretarako baitago webgunea. Hala ere, elkaturiko zeharkako kanala edukiko dugu, aurretik esan bezala propioak ez diren denda batzuekin. Beraz, modu honetan kanal anitzen oreka eta bateratzea egingo dugu gure produktuaren etekina maximoa izan dadin eta bezeroari gure balio proposamena helarazteko, eta gainera ahalik eta eskuragarrien bihurtzeko gure produktua.

Gure bezeroek haien metxeroa eskuratu duten momentuan, oso garrantzitsua iruditzen zaigu beraien proposamenak kontuan hartzea aurrera begira gure produktua hobetu ahal izateko. Horregatik, gure webgunean atal bat ireki dugu “Hobekuntzak” izena duena. Bertan, bezeroek produktuaren balorazio bat egingo dute hainbat hobekuntza gehituz nahi baldin badute. Horrela lortuko dugu bezeroekin gertutasuna lortzea eta etorkizunean Honni geroz eta hobeto prestatuta egotea.

Ondorioz, gure ondasuna eskuratzeko baliabide nahikoak izango dituzte gure bezeroek. Zailtasun gabe beraien etxeetara SEUR enpresaren bidez bidaliz edota beraien herriko denda ugarietan gure metxeroa aurkituz.

